

TXILLARDEGI (IDAZLEA)

Telesforo hamar lerrotan

1. Telesforo **euskaltzale** porrokatua zen. Berak erabiltzen zituen hitzak berriro nik errepikatuz: «neure begi-niniak adina maite dut euskara».

2. Abertzaleon arteko akordioirik gabe zer eginik ez zegoela sinetsita, **Fronte Abertzalea** eraikitzen saiatu zen bi aldiz. Baina biotan porrot egin zuen. 1981an Donibaneko *Mende Berri* bere etxean, hil baino aste batzuk lehenago errezebitu ninduen azkeneko elkarrizketan, hau esan zidan: «ETAk bakarrik ez du indarrak aski burujabetza lortzeko. Eta PNVak ere ez. Bion arteko elkarketa ezinbestekoa da».

3. Telesforo **liderra** zen. Naturaltasunez, beregana hurbiltzen zuen jendea, eta talde-ekintzara bultzatzen. Joera desberdinetako Alfonso Sastre, Aita Lar-

zabal, Argala, Itziar Aizpurua, Zumalde, Miguel Castells, eta abar luze bat, lankide izan zituen alde edo moldez.

4. **Hizlari bikaina** zen Euskal Herriko hiru hizkuntzetan. Keinu egokiaren intuizioa zuen, eta entzuleriarekin adostasuna lortzeko dohain harrigarria. Bide beretik, «Gudariekin» aldegin zuen Euskal Herriko 1937an; eta 1977an, Askatasunaren Ibilaldikoan itzuli zen deserritutako «Gudari gazteekin», muga isilpean gurutzatuz.

5. Telesforo jatorriz airon- seme izanik ere, **baserritarra** zen funtsean, eta oso maltzurra. Bere burua «laborari» bataiatuz, eta andre-masusta saltzaille, zirudien baino bertago zegoen baserritik.

6. Telesforo **ez zen intelektuala** inondik ere, nahiz luma zorrotza izan gure

hiru hizkuntzetan. Ideologi kontuak ez zitzaizkion interesatzen. Honek desberdin pentsatzen zutenekiko tratua errazten zion. Bi buruzagi aipatzen zituen maiz: Clemenceau eta Charles de Gaulle.

7. **Ausarta** zen. Arriskuek ez zuten beldurtzen. Hain zuten ere, Telesforok mespretxatu egiten zituen lider beldurtiak. ETArek alde behin eta berriz agertu zen (odolez blai mamiu ziren 1970-1981 urteetan). Areago nabarmendu zen joera hau Donibane Lohitzunen errefuxiatuen aldeko «Anai Artea» sortuz.

8. Telesforok **bihotz arazoak** (koronariaren askieza) izan zituen bere azkeneko bi hamarkadetan; baina izkatutu egin zituen, bere betekizun politikoa burutu ahal izateko. Nik berarekin Nogaron (Ipar Baskonian) buruz buru sei hilabete

pasa nituenean (1971ko Maiatzetik Urri-
ra), ez zen jadanik gauza aldaparik txiki-
na ere igotzeko (67 urte zituelarik). Eta
polikiago ibiltzeko eskatu ohi zidan pase-
atza irteten ginenean. Isidro anaiak
errietan egiten zion. Baina alferrik.

9. *Gudariaren egiñak* (1947) liburu gogorra irakurri besterik ez da behar, Telesforo beraxkeria eta **sasi-konponketa** politi-
koetatik urrun zegoela sinesteko. «Herri-
riak, pertsonak bezala, odoletan blai
jaiotzen dira» esaten zuen. ETA baten zai
zegoen aspaldidanik. Eta berori agertu
zenean, hau esan ohi zuen: «Odola dator.
Politika jukutriak orain? Utikan!».

10. Hala ere, bere **pragmatismoaren
ondorioz**, eta berri herriak eskatuko
ziona betetzeko prest zegoelako, Depu-
tatu izan zen Telesforo bi aldiz. PNVaren
zerrendetan 1933an, eta Herri Bata-
sunekoetan 1979an.

Telesforo: gizon handi bat. Zalantza-
rik gabe.



Ezkerreko irudian, Manuel Irujo, urteetan alderdikide eta adiskide handiarekin. Eskuinean, Herri Batasuneko kideekin, prentsaurreko batean. HITZAK ETA IDAZZAK



ITZIAR AIZPURUA EGAÑA (HB-KO MAHAIKIDE OHIA)

Gizon aparta, abertzale paregabea

Telesfororen ezaugarriarik nagusia abertzale izatean zetzan, Aberriarekin bat eginik bizi izatea. Hau zertan konkretatzen den? Atxurrik Ebrora hedatzen den lurraldea defendatzea; bertako herritar orok Burujabetasunean bizi ahal izateko *independentzia lortzea* autodeterminazioaren bidetik, eta euskararen naziotasun eta ofizialtasuna bermatzea.

Hori guztia lortzeko, Telesforok bi alde edo fase politiko bereizten zituen: Maltzagarainoko bidea —autodeterminazioarena, alegia—; eta Eibarreraingokoa —independentzia eta sozialismoarena—. Lehenengo bidea egiteko, edonork onar ezakeen bidea zela aitortzen zuen; mota

guztietako abertzale ezkertiar zein eskuinteko, demokrata, *sukursalistarena*. Honela zioen: «Abertzaleen programa minimoa eta sukursalisten maximoak ondo aztertzen baldin baditugu, hor bada programa minimo bat egiteko oinarriarik... Ez da dudarik, gu Eibarraino goaz. Inorez dadila engaina. Lehenbizi alderdi abertzaleok egin behar genuke bat, Eibarraino iritsi nahi dugunok. Gero Maltzagaraino iritsi nahi dutenek hartu gurekin».

Filosofia politiko sakon hori izan da nire aburuz Telesforok egin zuen ekarpenik garrantzikoena euskal gizarte osoarentzat, nahiz Ezker Abertzalearenengan izan duen eraginik zuzenena. Nire ustez, gaur Telesforok pozez biziko luke Autodeterminazioaren defentsan zenbait al-

derdi politiko, erakunde sozial, langileen sindikatu, gazte mugimendu eta abar egiten ari diren ahaleginak.

Telesfororen kezka nagusia bakea izan da, Euskal Herriaren eskubide eta justizian oinarritua. Oso hurbiletik ezagutu ditu gudariak, bai 36koak eta baita 60. 70. hamarkadetakoak ere. Haiekien bat eginda sufritu eta bizi izan ditu uretaz eta pozgarriak. Hitz batez esanda, maite izan ditu benetan, baita haiek bere ere.

ETA eta Gobernu espainiolaren arteko elkarrizketaren beharraz aritzen zenean honako hau askotan entzun diot: «Kanpaiak isilarazteko (armak, alegia) sakristauarekin hitz egin behar da eta ez apai-zarekin. Bakea egin daiteke gaur bertan inork ere ohorea ataraian utzi gabe».

Telesforo kultura handiko gizona zela inork ez du ukatuko, baina beharbada ez dute askok autodidakta zela. Berak zioenez, ikasle eskasa izan zen. Ez zituen abokatutza ikasketak bukatu ere egin. Hori aipatu ondoren esango nuke pertsona gutxi izango direla Euskal Herrian olerki, musika, antzezlan, idazlan eta hitzen bitartez hain zuten Herriarengan, bere muinera, bihotzera, erraietara heldu denik. Ekarpen zabala Telesforok kultur mailan egindakoa, egun Euskal Herriaren ondare.

Telesforo zalduna zen goitik behera. Maite zuen dotorezia, berezkoa zuten Maria Josefak eta biek dohain hori. Nork ez du gogoan alandora arrastaduna, zapata txuri-beltzak, txapela buruan eta makila, bere laguna, eskuan?

Telesforo gizon aparta eta abertzale paregabea izan zen eta halaxe jarraitzen du izaten Ezker Abertzalegoren antz.